

abenduak 17

abenduak 27

KULTUR AGENDA



Gospel doinuak Kursaalean

Laukotea iazko Jazzaldian aritzekoa zen, baina taldekide baten ezusteko heriotzak bertan behera utzi zuen kontzertua. Berregindako talde honen eta The Five Blind Boys of Missisipioren emanaldia 20.00etan hasiko dira.

Gospel musika entzun ahal izango da datozen egunotan Kursaal auditorioan. Hilaren 18an, larunbata, The Five Blind Boys of Missisipi taldea ariko da. Aipatutako hau bost itsuk 1943an sortutako taldea da, eta horietako hiruk gaur egun taldean jarraitzen dute. Boskoteak EEBB hegoaldeko gospela egiten du, eta ikusleekin harreman estua lortzen ahalegintzen da.

Hilaren 19an, igandea, The Golden Gate Quartet-en txanda helduko da, Gospel musikan izen handiko taldea.



King Vidor-en agurra, euskaraz

Hilaren 22an amaituko da Nosferatu zineklubak King Vidor zuzendariari buruz antolatutako zikloa. Azken emanaldi honetan "Gerra eta bakea" emango da, Lev Tolstoiren nobela klasikoan oinarritutako filmea. Aktore bikainak ari dira bertan: Audrey Hepburn, Henry Fonda eta Vitorio Gassman, besteak beste. Filmea euskaraz azpitulatuta emango da. Emanaldia Antzoki Zaharrean izango da, 20.15etan.

Ana Pozas eta Mikel Urdangarin Altzan

Hilaren 19an, igandea, Mikel Urdangarin kantariak kontzertua emango du Altzako auzo etxean. Zornotzako kantariak bi disko ditu kalean: "Haitzetan" eta "Badira hiru aste". Urdangarinen aurretik Ana Pozas Donostiako abeslaria ariko da. Kontzertua 20.00etan hasiko da.

